

**EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN
AGIRIA, DONOSTIA TURISMOA, SA-RENTZAT DONOSTIAKO HIRIAN BISITALDI
GIDATUEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO
LIZITAZIOA ARAUTU BEHARKO DUENA**

1. KONTRATUAREN XEDEA.....	3
2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA.....	3
3. ESLEIPEN PROZEDURA.....	4
4. ALDAERAK	4
5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA.....	4
6. IRAUPENA	4
7. LIZITAZIOKO GEHIENEN PREZIO UNITARIOAK ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA.....	4
8. PREZIOA BERRIKUSTEA.....	5
9. ORDAINBIDEA.....	5
10. BEHIN BETIKO BERMEA.....	6
11. GAITASUN BALDINTZAK	6
12. PUBLIZITATEA	8
13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA	9
14. BALORAZIO IRIZPIDEAK	13
15. EBALUAZIO BATZORDEA.....	15
16. PROPOSAMENAK IREKITZEA.....	15
17. KONTRATUA ESLEITZEA	16
18. KONTRATUA OSATZEA ETA FORMALIZATZEA.....	17
19. KONTRATUA GAUZATZEA	17
20. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK	18
21. KONFIDENTZIALTASUNA	20

22. KONTRATUAREN ARDURADUNA	21
23. ASEGURUAK.....	21
24. KONTRATUA LAGATZEA.....	21
25. AZPIKONTRATAZIOA.....	21
26. KONTRATUAREN ALDAKETAK	22
27. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA	22
28. KONTRATUA ETETEA.....	22
29. BERANDUTZEAREN ETA GAUZATZE AKASTUNAREN ONDORIOZKO ZIGORRAK.....	22
30. KONTRATUA DEUSEZTATZEA.....	23
31. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENENKO JURISDIKZIOA	24
I. ERANSKINA. EGUTEGIA	27
II.ERANSKINA. ABAL EREDUA.....	29
III. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA	30
IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA	31
V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.....	32
VI. ERANSKINA. KANPOKO BALIABIDEEN AITORPEN EREDUA	33

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA TURISMOA, SA-RENTZAT DONOSTIAKO HIRIAN BISITALDI GIDATUEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTU BEHARKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da bisitaldi gidatuen zerbitzua egitea (gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez) Donostiako hirian. Zerbitzu hori zuzenduta dago DONOSTIA TURISMOA, SAren bitartez bisitaldi horiek eskatzen dituzten erabiltzaile guztiei (mugikortasun mugatua dutenak barne), agiri honetan jasotakoaren arabera.

Donostian zehar egin beharreko bisitaldi gidatuak pertsonal espezializatuak egingo ditu, l. eranskin gisa agiri honi gehitutako egutegian jasotako data, egun eta ordutegietan. Bisitaldi bakoitzak 120 minutu iraungo ditu gutxienez eta hiru mota hauetakoak izango dira:

1. **“Oinarrizkoa”**: Zerbitzu hau eskatzen duten erabiltzaileek Donostiako leku eta monumentu adierazgarrienak bisitatu eta horiei buruzko azalpen zehatza jaso ahal izango dute.
2. **“Gaikakoa (1)”**: Zerbitzu hau eskatzen duten erabiltzaileek Donostiako leku eta monumentu adierazgarrienak bisitatu eta horiei buruzko azalpen zehatza jaso ahal izango dute, bertako gastronomiarekin lotuta.
3. **“Gaikakoa (2)”**: Zerbitzu hau eskatzen duten erabiltzaileek Donostiako leku eta monumentu adierazgarrienak bisitatu eta horiei buruzko azalpen zehatza jaso ahal izango dute, bertako kulturarekin lotuta.

Kontratuaren xede diren bisitaldi gidatuen zerbitzuak bere baitan hartuko ditu, behinik behin, bisitatuko diren lekuen eta monumentuen inguruko azalpena, l. eranskin gisa gehitutako egutegian jasotako data eta egunetan; baita, hala badagokio, esleipendunak bere eskaintzan aurkeztutako aparteko bisitaldi gidatua(k) ere (hobekuntza gisa).

DONOSTIA TURISMOA sozietateak aukera izango du l. eranskinean jasotako bisitaldi gidatuen kopurua gehitu edo murrizteko (urteko 520 bisitaldi zenbatetsi dira), urtebeteko bisitaldi kopuruaren % 15eko mugaraino.

Bisitaldi gidatuen zerbitzugintzarekin batera, kontratu honen xedearen parte gisa, DONOSTIA TURISMOA, SAren helburua da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bultzatzea eta oinarrizko lan eskubideak errespetatuko direla bermatzea.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratugile DONOSTIA TURISMOA, SA da (aurrerantzean, DONOSTIA TURISMOA).

DONOSTIAK KULTURAKo Administrazio Kontseilua da Kontratazio Organoa eta, hala badagokio eta ezar daitezkeen zuzenbide pribatuko arauen arabera, egokitzat jotzen dituen pertsonak ahaldundu ahal izango ditu, kontratuari lotuta jarduera jakin batzuk gauzatzeko.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua, eskaintza ekonomiko onuragarriena egiten duen lizitatuaren alde, agiri honetan ezarritako balorazio irizpideen arabera.

4. ALDAERAK

Ez da aldaerarik onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: ekonomia eta administrazio klausulen eta baldintza teknikoaren agiri hau, eta esleipendunak aurkezten duen eskaintza.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan bertan, guztiak onartzen dituenaren frogara gisa.

6. IRAUPENA

Kontratuaren iraupena 2015eko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Kontratazio Organoak, urtero, kontratua hiru urte gehigarri luzatu ahal izango du kontratu. Kasu horretan, DONOSTIA TURISMOAK horren inguruko jakinarazpen fede emailea bidaliko dio kontratistari, abian den kontratuaren indarraldiaren azken bihilekoaren barruan, eta kontratistak kontratua dagokion indarraldian betetzeko eta berori arautzen duen agiria betetzeko betebeharra edukiko du, luzapenak barne hartuta.

Salbuespen moduan, kontratuaren indarraldia amaitzean, esleipendunak zerbitzua egiten jarraitu beharko du, kontratuan ezarritako baldintza berberetan, baldin eta esleipen berririk egin ez bada, eta esleipen berri bat egin bitartean eskainiko du zerbitzua. Nolanahi ere, egoera hori ezin izango da hiru hilabetetik gora luzatu kontratua amaitzen den datatik.

7. LIZITAZIOKO GEHIENEN PREZIO UNITARIOAK ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA

Lizitatuak euren proposamen ekonomikoan adieraziko dute bisitaldi gidatuak egiteko prezio unitarioa, lido horretatik, bisitaldiko prezio unitario bakoitzeko HIRUROGEITA

ZAZPI (67) euro finkatu dira, BEZa kanpo. Lizitzaileek kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute euren eskaintzetan.

Lizitzaileek kontu sail independente batean adieraziko beharko dute DONOSTIA TURISMOAk jasan beharko duen BEZa.

Lizitzaileak eskaintzen duen prezioaren barruan daudela ulertuko dira zerbitzugintzak berezkoak dituen kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak egiteko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantzza, oporrak eta aparteko ordainsariak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, laneko arropak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), pertsonal lizitzailearen joan-etorri gastuak, baita zerbitzuak eragindako zerga guztiak (BEZa kanpo), gainerako aseguruak, lizentziak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Lizitzaileak eskaintako prezio unitarioan ere sartuta egongo dira zerbitzua egiteko enpresa kontratistak erabili behar dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, informatika tresneria, ikus-entzunezko tresneria eta aparailuak.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duenaren 88. artikulua ondo oinarriturako, kontratuaren guztizko balio zenbatetsia BERREHUN MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR eurokoa da (200.330 €), BEZa kanpo.

Zenbatetsitako balio hori kalkulatzeko, kontuan hartu da I. eranskinean jasota dagoen hasiera batean aurreikusitako bisitaldi kopurua kontuan hartu da (hau da, urteko 520 bisitaldi gidatu), eta erantsi egin zaio DONOSTIA TURISMOAk bisitaldi gidatuen kopurua gehitu edo murriztea eskatzeko duen ahalmenaren ondoriozko zenbatekoa (urteko bisitaldi kopuruaren gehienez % 15eko zenbatekoraino); kontratuaren litekeen iraupenaren denbora osorako zenbatuta (hau da, kontratuaren hasierako iraupen-eperako: bi urte, gehi luzapeneko hiru urte).

8. PREZIOA BERRIKUSTEA

Ez da prezioen berrikuspenik egingo.

9. ORDAINBIDEA

Hileroko ordainketak egingo dira, enpresa kontratistak kasuan-kasuan dagokion faktura aurkeztu eta gero.

Kontratistari hilero ordaindu beharreko prezioa eragiketa honen emaitza izango da: kontratistak bisitaldiko eskaintako prezio unitarioa bider hil bakoitzean izandako bisitaldi kopurua.

Enpresa kontratistak faktura luzatuko du hilero, kasuak kasu dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabeteko lehen bost egun naturalen barruan.

Zerbitzuak egin diren hilabetea amaitu eta hogeita hamar eguneko epean ordainduko du DONOSTIA TURISMOAK eskaera bakoitzean EGINDAKO zerbitzuen prezioa; betiere, faktura aurreko paragrafoan adierazitako epearen barruan aurkeztu bada eta DONOSTIA TURISMOAK onartu badu.

Ez da ordainduko agiri honen kontratu xedetik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, DONOSTIA TURISMOAK aldeztu aurretik eskatu ez duen lan edo zerbitzurik.

10. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuen esleipendunak behin betiko berme bakar eta orokor bat eratuko du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela ziurtatzeko. Berme hori mila eurokoa (1.000 €) izango da, BEZa kanpo.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitazaileak hamar egun baliodun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, DONOSTIA TURISMOAREN errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan osatu daiteke bermea.

Abal moduan eratuz gero, baldintza agiri honi II. Eranskin gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Bermea eratu izana ezin izango da egiaztatu bitarteko elektronikoen bidez.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituztenean.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte ordainak gauzatzen badira, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Enpresaburuak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea egokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.

Agiri honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBaren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

11. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA TURISMOAREKIN kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoak

Enpresa lizitatzailleek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzugintza gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izango dira, kontratuko prestazioak berez dagozkien estatutuei edo sorrerako araei jarraituz, jardueraren helburu, xede edo esparrukoak direnean.

Nolanahi ere, DONOSTIA TURISMOArekin kontratatzeke ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita daudeneko estatu legeriaren arabera kasuan kasuko zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita daudeneko estatu legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoen pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitako enpreko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA TURISMOArekin kontratatu ahal izango dute kasurako aldi baterako eratzten diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Beharrezkoa denean, lizitatzailleek ondoren adierazitako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela ziurtatuko dute:

- Bisita gidatuen zerbitzugintzan azken bi ekitaldietan gutxienez 30.000 euroko negozio-bolumen orokorra edukitzea (BEZa kanpo), ekitaldi bakoitzaren kasuan.
- Kontratuaren xedearekin lotuta, besteak beste, mota honetako kudeaketa prozesuetan parte hartu izanaren kalitate ziurtagiriak izatea: Q Kalitate Turistikoa, SICTED eta antzeko bestelakoak.

Lizitatzailleek, kaudimena ziurtatzeko, honako giza baliabide eta baliabide material hauek bideratzeko konpromisoa hartuko dute, gutxienez, kontratuaren esleipendun suertatuz gero:

- Zerbitzuren arduradun bat; behinik behin, egiaztatutako bi urteko esperientzia izango duena antzeko ezaugarrietako postuetan, Turismoko titulazioa izateaz gain. Pertsona horrek adierazitako funtzioak bete beharko ditu eta arintasunez

komunikatzeko gai izan beharko du, bai hitzez, bai idatziz, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

- Hiru gidari, gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatua izango dutenak bisita gidatuen zerbitzugintzaren esparruan, eta euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko ezagutza ahozkoa eta idatzizkoa izango dutenak.

Hizkuntzaren ezagutza egiaztatzeko, hizkuntzetako edozeinen C1 profila izatearen egiaztagiria aurkeztu beharko da, edota bisita gidatuen zerbitzugintzan (hizkuntza horietan) gutxienez 3 urteko frogatu beharko da.

- Gipuzkoako lurraldean lokal edo establezimendu bat izatea, bertatik zerbitzugintza kudeatzeko.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA TURISMOAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

Kontratua egiteko beharrezkoa den lehen aipatutako kaudimena eta/edo gutxieneko giza baliabide eta baliabide material jakin batzuk (lehen aipatu dira ere) atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzailerek, haiekin edozein motatako lotura juridikoa dutela ere, aitorpen bat aurkeztu beharko dute (VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera), dagokion enpresak honako hau adieraziko duena: lizitatzaila aurkezten deneko lizitazioaren baldintzen jakitun dela beren hedadura osoan; adierazitako kaudimena duela (horren egiaztagiria aurkeztuko du, 13. klausulan jasotako eran); eta, esleipendun suertatuz gero, lizitatzaila horren eskura kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak jartzeko asmo ezeztazina duela, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta (Administrazioak berariaz baimendu beharko du hura ordezkatu edo aldatzea). Idatzia aurkezteak berekin ekarriko du DONOSTIA TURISMOAK konpromiso hori onartzen duela, baldin eta dagokion lizitatzaila esleipendun suertatzen bada.

12. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta TURISMOAREN kontratugile-profilean argitaratuko da.

Kontratuaren esleipena DONOSTIA TURISMOAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratugileak, profil horretara sartzeko, honako web orri honetara jo beharko du: www.sansebastianturismo.com.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkeztean, lizitatuzaileak ekonomia eta administrazio klausulen agiri hau eta baldintza teknikoaren agiria salbuespenik gabe eta baldintzarik gabe onartzen duela ulertuko da.

Ekonomia eta administrazio klausulen eta baldintza teknikoaren agiria DONOSTIA TURISMOAREN kontratatzailearen profilean eskura daiteke.

Lizitazioan parte hartzeko, lizitatuzaileek hiru gutun azal itxi aurkeztu behar dituzte Boulevard 8an dauden DONOSTIA TURISMOAREN bulegoetan (10.00etatik 13:00etara), lizitazioaren azken iragarkia argitaratu eta 15 eguneko epean. Gutun azal horietan geroago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute, eta guztietan jarriko dute enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak eta izaera, telefono zenbakia eta fax zenbakia eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Plegu honen III. eranskineko ereduaren arabera.

Gutun azal bakoitzaren atzealdean, era berean, honako hau idatziko da: “DONOSTIA TURISMOA, Sarentzat Donostiako hirian prozedura irekiaren bidez bisitaldi gidatuen zerbitzua kontratatzeko lizitazioan parte hartzeko proposamena”. Gainera dagokion zenbakia gehitu beharko da (1. gutun azala, 2. gutun azala edo 3. gutun azala, dagokionaren arabera).

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan egin aurkez daitezke; betiere, ondoren datorren atalean adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatuzaileak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio DONOSTIA TURISMOARI egun bereko telex, fax edo presako telegrama bidez (ondorengo zenbakira: 943.42.81.22) edo presako telegrama bidez egun berean. Halaber, posta elektronikoa erabil daiteke bidalketa egiteko (honako helbide honetan: direccionsansebastianiturismo@donostia.org). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da argi jasota egotea bai bidali izana, bai jaso izana, bai datak eta bai komunikazioen eduki osoa ere. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu egin beharko da, gero espedienteari eransteko.

Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena proposamenak hartzeko ezarritako epea eta ordua igaro ondoren iristen bada, eskaintza ez da onartuko.

Haatik, aipatutako egunetik hamar egun naturaleko epean dokumentaziorik jaso ez bada, ez da gehiago onartuko.

Dokumentu guztiak zerrendatzen dituen orri aske bat aurkeztuko da gutun azal bakoitzean eta, horrekin batera, jarraian adierazi diren dokumentuak gaineratuko dira:

1. gutun azala.- “KONTRATATZEKO GAITASUNA”

a) Lizitatzailerearen eta, hala badagokio, bere ordezkariaren jarduteko gaitasunaren ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuaren kasuan, enpresako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo eratze egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jardura arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren izaeraren arabera dagokionean.
- Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuako legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitortzen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.
- Atzerriko gainerako enpresaburuaren jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena behar da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu behar da atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitako sektore publikoko erakunde, organismo edo entitatearekiko kontratazioetan parte hartzea.
- Pertsona fisikoak diren enpresaburuaren kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien estatuak agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.
- Ordezkari gisa aurkeztu diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenak, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta dagokien ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridikoaren arabera.
- Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak elkartearen eratzeko eratzeko dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi behar dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi behar dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behar dituzte egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarrik izendatu behar dute. Ordezkari edo ahalduen horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Jatorrizko agiriak aurkeztuko dira, edo behar den bezala konpultatu edo legeztatu diren kopiak.

b) Lizitzailea SPKLTBaren 60.1 artikuluan ezarritako kontratatzeke debekuetan erori ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko aitortpena, IV. eranskineko ereduaren arabera.

Lizitzaileak, era berean, indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen aitortpen erantzulea barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena egiten duen lizitzaileak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako hamar egun baliaduneko epea edukiko du, DONOSTIA TURISMOAK xede horrekin bidaltzen dion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

c) 11. klausulan adierazitako kaudimen finantzarioa eta ekonomikoa eta teknikoa edo profesionala dutela ziurtatuko dute enpresa lizitzaileak.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala honela ziurtatuko da:

- Bisitaldi gidatuen zerbitzugintzan azken bi ekitaldietan gutxienez 30.000 euroko (BEZa kanpo) negozio bolumen orokorra edukitzearen aitortpena, azken bi ekitaldietako bakoitzean.
- Azken bi ekitaldietan egindako zerbitzu nagusien zerrenda, kontratuaren xede diren zerbitzuen antzekoak; haien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazita.
- Kontratuaren xede den zerbitzugintzarekin lotuta lizitzaileak dituen kalitate ziurtagiriak, edota Q Kalitate Turistikoa, SICTED edo antzeko motako kalitate kudeaketako prozesuetan parte hartu izanaren ziurtagiriak.

d) Kontratua gauzatzeko, gutxienez, 11. klausulan adierazitako giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeke konpromisoa.

Kontratura atxikitzeke hitzemandako pertsonak izenaz identifikatuko dira; eta adierazi egingo da bakoitzaren titulazioa, hizkuntzen ezagutza (hala badagokio, titulu jakin bat badu adierazita), eta beharrezkoa den esperientzia duela ziurtatzen duen curriculum vitae-a; egindako lanen eta lan egindako erakundeen zerrenda xehatua barne dela.

Era berean, lizitzaileak, Gipuzkoako lurraldearen barruan, atxikitzeke konpromisoa hartzen duen lokala edo establezimendua, lizitazio honen xede den zerbitzugintzatarako esleipendun suertatuz gero.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA TURISMOAK kontratua bertan behera uzteke eskubidea du.

e) Hala badagokio, aitortpena aurkeztuko da, lizitzaileak eskatzen den kaudimena duela ziurtatzeko beste erakunde baten kaudimena erabiliko badu, VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

f) Atzerriko enpresek, bestalde, berriazko adierazpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako,

Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraziko dute.

g) DONOSTIA TURISMOAK egiten dituen jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzeko dokumentua, agiri honetan III. eranskin gisa barne hartutako ereduaren arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzailerik, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, a) atal honetan aipatutako dokumentazioaren ordean. Inskripzio ziurtagiriarekin batera, lizitatzailerik ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpen sinatu bat aurkeztuko du.
- (ii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.
- (iii) DONOSTIA TURISMOAK lizitatzailerik aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

2. gutun azala.- “PROPOSAMEN TEKNIKOA”

Dokumentu hauek edukiko ditu:

- a) Memoria teknikoak, honako alderdi hauek barne hartuta, gutxienez:
 - Kontratuko prestazioak gauzatzeko eraren deskribapen eta azalpen metodologia.
 - Lantaldearen antolamendua (eskatutako gutxienekoarekiko gehigarria ere), lizitatzailerik kontratuaren gauzatzera atxikitako duena.
 - Bisitaldi bakoitzaren argumentuaren, geldialdien eta denbora kudeaketaren deskribapen osatua.
- b) Giza bitartekoak:

Kontratua gauzatzeko lizitatzailerik atxikitzeko konpromisoa hartzen dueneko giza bitartekoen deskribapena (11. klausulan eskatutako gutxienekoari gehituta); baita, hala badagokio, pertsona horiek ordezkatu edo txandakatzeko dituen giza bitartekoen deskribapena ere (era berean, kontratua gauzatzeko ondorio horietarako atxikitzen dituen giza bitartekoena).

Giza bitarteko horiek identifikatuko dira, eta bakoitzaren titulazioari, hizkuntzen ezagutzari (gaztelania, euskara, ingelesa eta frantsesa), esperientzia urteei eta curriculum vitaeari buruzko xehetasunak emango dira, egin dituzten lanak zehaztuta eta lan egiten duteneko erakundeak adierazita.

c) Bitarteko materialak:

Kontratua gauzatzeko atxikiko diren bitarteko materialen deskribapena (adibidez, telefonoak, erabiltzaileentzat eskuragarri egongo diren iradokizunen orriak, ordenagailuak, faxa, mikrofonoak, eskanerra, irrati gidak, etab.).

d) Hobekuntzak:

Lizitatuak eskaintzen dituen hobekuntzak adieraziko ditu. Hobekuntzak alderdi hauen ingurukoak izango dira:

- Aparteko bisitaldi gidatua(k), doan egingo direnak, agiri honen 1. klausulan eskatutako gutxienez gehituta.
- Lizitatuak, agiri honetan jasota dauden gutxienezko hizkuntzez gainera (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa), zerbitzua zein beste hizkuntzatan egin dezakeen zerbitzua: italiara, japoniera, errusiera, txinera, etab.
- *Kontratua gauzatzeko, gidari gisa atxikitakoen gutxienez % 30 emakumezkoak izatea.*

DONOSTIA TURISMOAK lizitatuak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

3. gutun azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Lizitatuak proposamen ekonomikoa egin beharko dute, agiri honen V. eranskin gisa barne hartutako ereduaren arabera.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera antolatuta, honakoak dira:

1. Proposamen teknikoak: gehienez 80 punturaino

- a) Memoria teknikoak: gehienez 25 punturaino.

Alderdi hauek baloratuko dira: metodologia; lantaldearen antolamendua; argumentuaren deskribapen osoa; bisitaldietako geldialdiak eta denboraren kudeaketa.

- b) Giza bitartekoak: gehienez 25 punturaino.

Baloratu egingo da kontratua gauzatzeko lizitatzailleak atxikiko dituen giza bitartekoen osaera eta kualifikazioa (11. klausulan eskatutako gutxienekoari gehituta); baita, hala badagokio, pertsona horiek ordezkatu edo txandakatzeko dituen giza bitartekoen deskribapena ere (era berean, kontratua gauzatzeko ondorio horietarako atxikitzen dituen giza bitartekoena).

- c) Bitarteko materialak: gehienez 10 punturaino.

Baloratu egingo dira kontratua gauzatzeko atxikiko diren bitarteko materialak (adibidez, telefonoak, erabiltzaileentzat eskuragarri egongo diren iradokizunen orriak, ordenagailuak, mikrofonoak, faxa, eskanerra, etab.).

- d) Hobekuntzak: gehienez 20 punturaino.

Baloratu egingo dira, agirian eskatutako gutxienekoei gehituta, lizitatzailleak doan eskaintako aparteko bisitaldi gidatua(k); eta lizitatzailleak, agirian ezarritako gutxieneko hizkuntzei gehituta (gaztelania, euskara, frantsesa eta ingelesa), eskaintzeko gai den hizkuntza(k); eta, kontratua gauzatzeko gidarien gutxienez % 30 emakumezko atxikitze proposamena.

Azken konpromiso hori funtsezko kontratu betebeharra izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA TURISMOAk kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

2. Proposamen ekonomikoa: gehienez 20 punturaino.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak irizpide automatiko gisa baloratuko dira jarraian ezartzen den honako formula honen bitartez:

$$P_{tn} = \frac{(PI - O_n)}{(PI - O_1)} \times P_{tu}$$

Non: PI = agirian ezarritako gehieneko prezio unitarioa; P_{tu} = gehieneko puntuazioa; O₁ = onartutako eskaintzarik baxuena; O_n = lizitatzaille bakoitzak eskaintako kantitatea; P_{tn} = lizitatzaille bakoitzak lortutako puntuazioa.

Proposamen neurrigabe edo ezohiko bat antzemanaz gero, eskaintza egin duen lizitatzaileri audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Ondorio horietarako, proposamen neurrigabe edo ezohikotzat hartu ahal izango da lanbide kategoriarako gutxieneko soldata kostuetatik beherako prezioa adierazten duena, kontratua gauzatzeko aplikatzekoa den hitzarmenaren arabera.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: DONOSTIA TURISMOA sozietateko zuzendari kudeatzailea.
- Batzordekideak:
 - DONOSTIA TURISMOA sozietateko Zuzendaritzako albokoa.
 - DONOSTIA TURISMOA sozietateko produktu turistikoen arduraduna.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak 1. gutun azalean barne hartutako agiriak baloratuko ditu, garaiz eta taxuz, eta konpon daitekeen akatsik edo ez egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea utziko du, gehienez ere, lizitatzailleak akats edo ez egite horiek konpontzeko.

Dokumentazioaren kalifikazioa egin eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez egiteak konpondu eta gero, 2. gutun azala ("proposamen tekniko") irekiko da, berori aztertu eta baloratzeko.

Proposamen ekonomikoa jasotzen duen 3. gutun azalaren irekiera publikoki egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako lizitatzaille guztiei, III. eranskinaren arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Inguruabar horiek, era berean, DONOSTIA TURISMOA sozietateko kontratugilearen profileen argitaratuko dira, 48 ordu lehenago gutxienez.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren lizitatzaillei.

DONOSTIA TURISMOA sozietateko Ebaluazio Batzordeko lehendakariak proposamenak irakurri eta gero, baztertu egingo dira Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, APKLEO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan jasotako kausetakoren batean sartuta daudenak.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitu ondoren, haiek aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienerako hurrenkeran, 14. klausulan ezarritako balorazio irizpideei jarraituz, eta eskaintza ekonomiko onuragarriena identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamenaren txosten juridikoa egingo da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko onuragarriena identifikatzeak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaillearen alde.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako lizitatzailera aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, DONOSTIA TURISMOA sozietateko Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoitu behar du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzaileri, eta lizitatzailleak 10 egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- a) Agiri honen 10. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztagiria.

Esleipendunak ekonomia jardueren gaineko zergan, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo ekonomia jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen aitorten erantzulea gaineratu beharko da. Edozein modutan, aipatutako zergan baja hartu ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko aitorten bat aurkeztuko da.

- c) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izanaren egiaztagiria.
- d) Kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak eta bitarteko materialak benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.
- e) Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- f) Aseguru polizaren kopia, agiri honen 23. klausulan eskatutakoaren arabera.

Epearen barruan aipatu berri den dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailleak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzailerei jakinaraziko zaie, agiri honen III. eranskin gisa gaineratutako ereduari adierazitako bitartekoaren arabera. Aldi berean, DONOSTIA TURISMOA sozietateko kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUA OSATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean osatuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da hamabost egun balioduneko epearen barruan, lizitatzailerek eta esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hala ere, esleipendunak kontratuaren eskritura publikoa egiteko eska dezake. Kasu horretan, bere kontura izango dira formalizazio gastuak.

Kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, DONOSTIA TURISMOA sozietateak hurrengo lizitatzaileri edo lizitatzailerei eska dakioke edo dakieke agiri honen 17. klausulan adierazten den dokumentazioa eta hamar egun balioduneko epea utziko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da.

Zerbitzua gauzatzean, zorrotz heldu beharko zaie agiri honetan jasotako hitzarmenei, oro har aplikatzekoa den araudiari eta, betiere, kontratatutako zerbitzuen berezko arau teknikoari, baita, horien interpretazio teknikoan, DONOSTIA TURISMOA sozietateak edo, hala badagokio, kontratuaren arduradunak kontratatari emandako jarraibideei ere.

DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA TURISMOA sozietateak egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratu betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, baita zerbitzua kalitate maila egokiaz egiten dela egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko DONOSTIA TURISMOA sozietateak egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

Enpresa kontratistak lan-esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita Gizarte Segurantzaren eta laneko arriskuen prebentzioaren esparruan indarrean daudenak ere, zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren langileei dagokienez.

Kontratataren ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Langile guztiak kontratataren mendekoak dira. Kontratatarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio DONOSTIA TURISMOA sozietateari erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin –langile propioekin edo noizean behin azpikontratatzan direnekin– lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA TURISMOA sozietateak ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua eskaintzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

Kontratistak, nolana ere, lanak ondo egiteko beharrezkoak diren tresneria edo bitarteko osagarriak jarri beharko ditu; eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Gainera, dituen langileekiko, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.

Kontratazio honen helburuaren barne ez dago DONOSTIA TURISMOA sozietateak datu pertsonalak erabiltzea.

Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu behar da. Edozein kasutan, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hau garatzen duen araudian aurreikusitakotik enpresarentzako eratorriko diren obligazioak bere gain hartu beharko ditu, tratamendu horren ondorio gisa.

20. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Honako betebeharrak hauek edukiko ditu kontratistak:

- a) Kontratua bere klausulek, agiri honek eta Kontratazio Organoak kontratistari ematen dizkion jarraibideei zorroztz lotuta betetzea.
- b) Eskatzen duten erabiltzaile guztiei zerbitzua egitea (mugikortasun mugatua dutenak barne), DONOSTIA TURISMOAren bidez.
- c) Eskaintzan hitzemandako giza bitarteko eta bitarteko material guztiak kontratua atxikitzea.

- d) Behin betiko bermea ezartzea, agiri honen 10. klausulan ezarritako baldintzetan.
- e) Bere gidarien itxura egokia ziurtatzea, euren eginkizunetan portaera zuzenari eustea eta egutegia betetzea, bertan adierazitako egutegiaren arabera (egutegia I. eranskin gisa gehitu zaio agiri honi).

Ondorio horietarako, bisitaldi gidatuak egingo dituzten gidariek puntualki agertu beharko dute zerbitzugintzarako ohiko abiagunean, DONOSTIA TURISMOA sozietateko bulegoetan. Bertan, dagokion uniforme jasoko dute, eta uniforme hori jantzi beharko dute bisitaldietako ibilbideek irauten duten denboran.

Nolanahi ere, ezusteko arrazoiak direla eta, DONOSTIA TURISMOA sozietateak edo kontratuaren arduradunak erabakiz gero, bisitaldi gidatuak egingo dituzten gidariek prest egon beharko dute bisitaldiak Donostiako hiriko edozein ibilbidetatik hasteko.

- f) Bisitariarentzat eskuragarri izatea erreklamazioetako orriak, liburua edo iradokizunen orriak.
- g) Erantzukizun zibileko aseguru poliza sinatu eta mantentzea, agiri honen 23. klausulan jasotako baldintzetan.
- h) *Kontratua gauzatzeko atxikitako langileen oinarrizko lan eskubideak bete eta ziurtatzea. Zehazki, haien ordainsaria eta beste edozein gastu sozial edo laboral ordaintzea.*
- i) Langileak ordezkatzeko dagokien lana beharrezko arduraren eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean arduraren nahikoa ez badute edo kontratua ondo gauzatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA TURISMOA sozietateak errekerimendua egin eta gehienez ere bi eguneko epean egingo dira ordezkapenak.
- j) Bajen ondorioz –gaixotasun, aldi baterako ezintasun, opor, baimen, istripu, eta abarreatutako bajak- lanera bertaratzen ez diren langileak ordezkatzeko, eta kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean egingo direla ziurtatzea.
- k) Grebarik balego, zerbitzua betetzea. Zerbitzua hori bermatuko ez balitz, DONOSTIA TURISMOA sozietateak eskumena du hura estaltzeko behar diren kontratuak sustatzeko. Horrelakoetan, bere fakturaziotik kenduko dira aipatutako kontratuei dagozkien zenbatekoak.
- l) Kontratura zerbitzua behar bezala egiteko beharrezko giza bitartekoak zuzentzea eta, hala badagokio, laguntzako giza bitartekoak gehitzea, kontratuaren indarraldian lan kargan izan daitezkeen aldaketak direla-eta, litezkeen luzapenak barne direla.
- m) Zerbitzugintzarako beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak kudeatu eta lortzea (haren kontura izango dira sortzen diren gastuak nahiz bestelako tasak eta zergak).

- n) Dagokion arloa dela-eta, aplikatzekoa zaion araudi sektoriala betetzea, baita konfidentzialtasun betebeharra ere, agiri honen 21. klausulan jasotakoaren arabera.
- o) Bere gain hartutako betebeharrak egoki gauzatu eta betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren jardun guztiak aurrera eramatea, konpentsazio osagarriak jasotzeko eskubiderik gabe.
- p) Kontratatistak erabiltzaileentzat egindako bisitaldi gidatuak DONOSTIA TURISMOA sozietateak kobratzeko betebeharra betetzea.

Ondorio horietarako, DONOSTIA TURISMOA sozietateak finkatuko ditu eskatzen dituzten erabiltzaileentzat zerbitzuen truke aplikatu beharreko tarifak, eta tarifa horiek DONOSTIA TURISMOA sozietateak kobratuko ditu osorik, zuzenean nahiz horrek erabakitzen dituen merkataritza tresnen bitartez.

Klausula honetan barne hartutako betebeharrek kontratu betebehartzat hartuko dira SPKLTBaren 223.f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA TURISMOA sozietateak nahi badu.

21. KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez agiri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, Kontratazio Organoak ezin izango du zabaldu lizitatzailerek konfidentzialtzat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Kontratatistak eta kontratua gauzatzeko esku hartuko duten langile guztiek ezingo dituzte kontratuaren helburuarekin lotuta egongo diren datu, informazio eta aurrekariak ezagutzera eman –publikoak edo ezagunak ez badira–, ez eta lan horiek egiteko ezagutzen dituztenak ere. Halaber, edozein bidetik jasoko dituzten datuak eta informazioa konfidentzialki eta isilpean erabili behar dituzte, hirugarrenek horien berri ez izateko.

Kontratua gauzatzeko DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratatistari edozein euskarritan emandako informazioa, dokumentazioa, fitxategiak edo zehaztapenak konfidentzial gisa erabili behar dituzte kontratatistak eta kontratua gauzatzen parte hartzen duten langileek. Datu horiek –osorik edo zati bat– ezingo dira argitaratu, ezagutzera eman edo kontratua gauzatzeko ez den beste helbururako erabili, jakinarazi edo hirugarrenei utzi.

Azkenean kontratatistak bere gain hartuko du zerbitzua gauzatzeko emango dioten edo jasoko duen dokumentazioa leial eta kontu handiz zaintzeko obligazioa. Era horretan, dokumentazioa eta bertan jasotako informazioa kontratua gauzatzen ari ez diren hirugarren pertsonen esku helduko ez direnaren konpromisoa hartzen du.

Kontratatistak ezingo du kontratatutako lanen ondorioz sortutako datuak berarentzako edo hirugarrengoei emateko erabili. Halaber, ezingo du lan horien edukia argitaratu, osorik edo zati batean.

Konfidentzialtasunak iraupen mugagabea edukiko du.

22. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko bat edo juridiko bat izan daiteke, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen barrukoa edo kanpoko.

Enpresa kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

23. ASEGURUAK

Kontratistari exijitu egingo zaio erantzukizun zibileko aseguru poliza bat harpidetzeko eta kontratuaren iraunaldi osoan mantentzeko. Poliza horrek estali egin beharko ditu kontratua gauzatzearen ondoriozko kalte pertsonalen eta/edo materialen ondoriozko kalteen ordainak, hirugarrenei nahiz DONOSTIA TURISMOA sozietateari eragindakoak izanik ere, gutxienez 300.000 euroko aseguraturako kopururako. Gainera, polizaren kopia bat eta azken ordainketaren agiria aurkeztu beharko ditu.

24. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio baldin eta DONOSTIA TURISMOA sozietateak aurretiazko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta baldintza agiri honetan DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, ez du kontratatze debekurik izango eta behar den bezala sailkatuta egongo da. Horrela egingo du lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez. Hori guztia lagapenaren xede den zerbitzugintzari dagokionez.

25. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren prestazioak azpikontratatu ahal izango dira, baldin eta DONOSTIA TURISMOA sozietateak aurretiazko baimena ematen badu, berariaz eta idatziz. Edonola ere, azpikontratistak lege betebeharrak eta baldintza agiri honetan DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatze debekurik izango. Hori guztia lagapenaren xede den zerbitzugintzari dagokionez.

Azpikontratistek enpresa kontratistaren aurrean hartzen dute konpromisoa, hortaz, enpresa kontratistak erantzungo du DONOSTIA TURISMOA sozietatearen aurrean

eskaintzen duen zerbitzuagatik, betiere ekonomia eta administrazio klausulen agirian, baldintza teknikoaren agirian eta sinatzen den kontratuan adierazitakoari lotuta.

26. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratua zehaztu ondoren, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

27. KONTRATUGILEAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratutako zerbitzuen gauzatze egokiaren erantzule izango da kontratista.

Kontratista gauzatutako zerbitzuen eta egindako lanen kalitate teknikoaren arduraduna izango da, bai eta kontratua gauzatzearen ondoriozko egin eza, akats, metodo oker edo emaitza okerrekin hirugarrenoei edo DONOSTIA TURISMOA sozietateari ekarritako ondorio txarrez ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek (enpresa esleipendunaren langile propioek edo azpikontratatuak) jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak kontratistak ordainduko ditu.

28. KONTRATUA ETETEA

DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua etetea erabakitzen bada edo SPKLko 200. artikuluko 5. atalean, kasu honetan berariaz ezarri beharrekoan xedatutakoa aplikatuz kontratua eteten bada, Akta idatziko da eta kontratua eteteko arrazoiak eta kontratuaren egoera azalduko dira.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio.

29. ZIGORRAK

Kontratista behartuta egongo da kontratuaren indarraldian berori betetzera eta, bereziki, I. eranskinean ezarritako zerbitzugintza egutegia betetzera.

Kontratista, hari egotz dakizkikeen arrazoiengatik, finkatzen diren ordutegiekiko atzeratuko balitz edo egutegia beteko ez balu, kontratatutako zerbitzugintza akastuna gauzatuko balu edota kontratuko beste edozein baldintza beteko ez balu, DONOSTIA TURISMOA sozietateak bi aukera hauek izango ditu: kontratua deuseztatzea (30. klausulan jasotako baldintzetan) edo hura gauzaten jarraitzea. Azken kasu horretan, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen alde 50 euroko kopurua sortuko litzateke berandutze ordu bakoitzeko, adierazitako ordutegiekiko edo ezarritako egutegiarekiko.

Gauzatze akastuna eginez gero, akatsa zuzentzearen ondorioz kontratuaren gauzatzea atzeratu den ordu kopuruaren gainean aplikatuko dira zigor horiek; eta beste edozein baldintza betetzen ez bada, ez betetzeak iraun duen ordu kopuruaren gainean aplikatuko dira.

Zigor guztiak benetan eragin diren kalte eta galerekiko metagarriak izango dira.

Nolanahi ere, zigor horiek ez dira aplikatzekoak izango berandutzea ezinbesteko edo ezusteko arrazoien ondorio denean. Ondorio horietarako, dagokion bisitaldia bertan behera uztea, adierazitako arrazoiengatik, DONOSTIA TURISMOA sozietateak erabakiko du, eta horrek ez du inolako zigorrik ekarriko enpresa kontratistarentzat.

Kontratua gauzatzen jarraitzeko aukeraren kasuan ere, ez betetzeak dirauen bitartean, DONOSTIA TURISMOA sozietateak edozein unetan erabaki ahal izango du hura deuseztatzea (lehen adierazitako ondorioekin), egokitzen jotzen duen denboraz, bere bitarteko propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez zerbitzua egiten jarraitzeko. Halakoetan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerei eta klausula honetan jasotako gainerako ondorioei kalterik egin gabe.

Zigorak ordaintzeko, kontratistari, ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kantitateak murriztuko zaizkio, edo behin betiko bermetik murriztuko dira, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean; edozein kasutan, erreklamazioa aurkez daiteke, eraturako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

30. KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua/k deuseztatzeko arrazoi izango dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) –85. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe–, b), d), f), g) eta h) letretan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharrat hartzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, kontratua deuseztatzeko arrazoitzat hartu ahal izango da kontratistak ez betetzea agiri honen 20. klausulako h) letran jasotako funtsezko betebeharra, kontratua gauzatzeko atxikitako langileen oinarritzko lan eskubideak betetzeari eta horiek errespetatzeko bermeari dagokienez. Zehazki, haien ordainsaria eta beste edozein gastu sozial edo laboral ordaintzea.

Gainera, kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen borondatez kanpoko arrazoiengatik, kontratistak zerbitzugintzarekiko adostasunaren 10 zati ez betetzea, enpresaren grebaren ondorioz bada ere. Era berean, kasu horretan, kontratua deuseztatzea erabaki ala ez, DONOSTIA TURISMOA sozietateak ahalmena izango du beharrezko kontratuak sustatzeko, zerbitzugintzari berriro ekiteko helburuarekin; eta behin betiko bermetik kenduko da zerbitzu horien zenbatekoa (sobera, hala badagokio, bidezko erreklamazioaren xede izango da).

Klausula horretan kontratua deuseztatzeko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Kasu horretan, DONOSTIA TURISMOA sozietateak hartu duen erabakia jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak DONOSTIA TURISMOA sozietatearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak egiteko ordura arte landu edo sortu dituen dokumentu guztiak, DONOSTIA TURISMOA sozietateak erabilitako eta kontratistari emandako dokumentuekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia DONOSTIA TURISMOA sozietatearena izango da aurrerantzean.

Ondorio horietarako, gauzatze egoeraren akta idatziko da, eta, bertan, DONOSTIA TURISMOA sozietateak emandakotzat eta jasotakotzat onartzen dituen materiala, dokumentuak eta lana ez ezik, ez-emandakotzat edo ez-jasotakotzat jotzen direnak ere zehaztu beharko ditu, eta ez-jasotzat jotzeko arrazoiak adierazi beharko ditu. Era honetara, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du, bere kontu edo hirugarren baten bitartez.

Hori guztia kasuan kasu egingo den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe izango da, eta jarraian xedatutakoari jarraituz.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua deuseztatzean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua deuseztatzean eta dagokion materiala eta dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA TURISMOA sozietateak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik deuseztatzen bada kontratua, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20 pareko kopurua zergapetuko da DONOSTIA TURISMOA sozietatearen alde, izaera metagarriarekin, kasuan kasu ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain. Bi kopuru horiek behin betiko bermetik kenduko dira eta, hala badagokio, erreklamazioa egingo da soberaren gainean.

31. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA

Prestaketari eta esleipenari dagokienez, kontratua honako hauek arautuko dute: ekonomia eta administrazio klausulen agiriak, baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean horri buruz ezarritako arauak eta SPKLAN ezarritako arauak; eta, hala badagokio, 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koa eta SPKLaren zatiko garapena egiteko denak (aurrerantzean, 817/2009 ED) adierazitakoak. Horrela egingo da esleitzeko boterea eduki eta herri-administrazioak ez diren sektore publikoko erakundeek araupetze harmonizatutik kanpo egindako kontratuekin.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoak arautuko dute kontratua: ekonomia eta administrazio klausulen agiriak eta baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Kontratuaren aldaketari dagokionean, ordea, ez da halakorik egingo. Kasu honetan SPKLTBaren I. liburuko V. tituluan xedatutakoa aplikatuko dute.

Gainera, SPKLTBa, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena (aurrerantzean (817/2009 ED) eta/edo Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua

(aurrerantzean, 1098/2001 ED) aplikatzekoak izango dira agiri honek testu arauemaile horietara berariaz jotzen duen guztietan. Era berean, oro har, aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Ordena jurisdikzional zibilak izango du kontratua prestatu, esleitu, ondorioak eragin, bete eta iraungiarazteari dagokionez aldean artean sortzen diren gorabeherak ebazteko eskumena.

I. ERANSKINA. BISITALDI GIDATUEN EGUTEGIAK

1. Egutegia:

- DONOSTIA “OINARRIZKOA”:
 - Uztailea eta abuztua (egunero): 2 bisitaldi eguneko
 - Urtearen gainerakoa:
 - Larunbat eta igande guztiak: 1 bisitaldi eguneko
 - Zubiak eta jaiegunak (egunero): 2 bisitaldi eguneko
 - Aste Santua
 - Aurreko asteburua, asteazkenera arte: 1 bisitaldi eguneko
 - Ostegun santua, Pazko astelehenera arte: 2 bisitaldi eguneko
 - Gabonak (egunero): 1 bisitaldi eguneko
- DONOSTIA “GAIKAKOA (1)”:
 - Uztailea eta abuztua: 1 bisitaldi eguneko
 - Urtearen gainerakoa:
 - Larunbat guztiak: 1 bisitaldi eguneko
 - Zubiak eta jaiegunak (egunero): 1 bisitaldi eguneko
- DONOSTIA “GAIKAKOA 2”:
 - Uztailea, abuztua eta iraila: 1 bisitaldi eguneko (astelehenetik larunbatera, jaiegunak izan ezik)
 - Urtearen gainerakoa:
 - Urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, urria, azaroa eta abendu: 2 bisitaldi hileko –larunbata–
 - Ekaina: 1 bisitaldi hileko larunbat guztietan
 - Zubiak (egunero): 1 bisitaldi eguneko (jaiegunak izan ezik)

Urte natural bakoitzeko lehen bi egun baliiodunen barruan, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari egutegi bat emango dio. Bertan, bisitaldi gidatuen zerbitzua (“Oinarrizkoa”, “Gaikakoa (1)” eta “Gaikakoa (2)” zehazki zein egunetan egingo den adieraziko da. Egutegi hori eranskin honetan jasotako edukira egokituko da.

2. Iraupena:

Egin beharreko bisitaldi gidatu bakoitzak 120 minutu iraungo ditu gutxienez.

3. Hizkuntza:

Bisitaldien hizkuntzak gaztelania, euskara, ingelesa eta frantsesa izango dira, DONOSTIA TURISMOA sozietateak erabakitzen duenaren arabera. Bisitaldi elebidunak eta elebakarrak eskainiko dira; era berean, DONOSTIA TURISMOA sozietateak erabakitzen duenaren arabera.

DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari bisitaldien hizkuntzak zen diren jakinaraziko dio egutegia entregatzeko unean.

4. Argumentuaren deskribapena:

Kontratistak DONOSTIA TURISMOA sozietateari bisitaldien argumentuaren deskribapena, geldialdiak eta timing-a (denboraren kudeaketa) jakinaraziko dizkio, eta DONOSTIA TURISMOA sozietateak horietan aldaketak egin ahal izango ditu, bere irizpidearen arabera.

II. ERANSKINA. ABAL EREDUA

[...] erakundeak (*kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena*), IFK [...] eta helbidea (*jakinarazpen eta errekerimenduetarako*) [...(e)an] dituenak, eta haren izenean [...(e)k] (*ahalordedunen izen-abizenak*), agiri honen behealdean adierazitako ahalorde askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak [...] (abaldunen izen-abizenak edo izen soziala), IFK [...] duenak, MILA EUROKO (1.000.- €) kopuruan (*letraz eta zenbakiz*) ABALATZEN DU, DONOSTIA TURISMOA, SA sozietatearentzat Donostiako hirian zehar bisitaldi gidatuen zerbitzua egiteko kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal emaileak, bere erantzukizun pean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan adierazitako betebeharrak betetzen dituela. Abal hori notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, eskusio onurari espresuki uko eginda, eta DONOSTIA TURISMOA, SAREN lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da DONOSTIA TURISMOA, SAK abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

Lekua eta data [...].

Erakundearen izena [...].

Ahaldun(ar)en sinadura [...].

III. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA

..... jaunak/andreak,..... helbidea eta NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo helbidea eta IFK dituenren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen ditu DONOSTIA TURISMOA, SArentzat Donostiako hirian bisitaldi gidatuen zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzekeko lizitazioa arautu behar duten ekonomia eta administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoaren agiria, eta DONOSTIA TURISMOA, SAK aipatutako lizitazioarekin lotuta egin beharreko jakinarazpen oro, lehentasunez, honako bitartekoa erabiliz egitea nahi du (*):

- Faxe.
- Posta elektronikoa.
- Posta ziurtatua.

(*). *Adierazi hautatutako bitartekoetako bat.*

Nolanahi ere, ondoren adierazitako datuak zehaztuko dira jakinarazpenak egiteko:

- Fax zk.:
- Posta elektronikoen helbidea:
- Posta helbidea:
- Harremanetarako telefonoak:

[Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta arinen egiteko, lizitazioaren faxari lehentasuna ematea gomendatzen dizuegu. Lizitazioak faxa aukeratu badu, jakinarazpenak fax bidez egingo dira. Hala ere, beste bitarteko bat aukera daiteke. Ez bada aukerarik egiten, posta ziurtatu bidez egingo dira jakinarazpenak, adierazitako helbidean.]

IV. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEKO EREDUA

..... jaunak/andreak, helbidea, NAN zk.,
..... telefonoa eta e-posta dituenak, bere izenean, edo
helbidea eta NANA edo IFK [pertsona fisikoa edo juridikoa den
kontuan hartuta] dituenren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko
gaitasun osoz, ezagutzen ditu DONOSTIA TURISMOA, SAK Donostiako hirian bisitaldi
gidatuen zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzeke lizitazioa arautu behar
duten ekonomia eta administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoaren agiria.

AITORTU DU:

Lehenik: Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina eta gaiari buruz indarrean dauden gainerako xedapenak onartzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60.1. artikuluan jasota kontratatzeke bateraezintasunik eta debekurik ez duela.

Bigarren: Ordezkatzen duen enpresak zerga esparruan eta Gizarte Segurantzakoan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituela.

.....(e)n, 2014koaren(e)(a)n

Sin.:.....

V. PROPOSAMEN EKONOMIKOKO EREDUA

..... jaunak/andreak,..... helbidea eta NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo helbidea eta IFK dituenren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen ditu DONOSTIA TURISMOA, Sarentzat Donostiako hirian bisitaldi gidatuen zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko lizitazioa arautu behar duten ekonomia eta administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoek, eta honako hau

AITORTU DU:

1. Konpromisoa hartzen duela kontratuaren denbora osoan bisitaldi gidatuen zerbitzua egiteko (DONOSTIA TURISMOA, SAK, hala badagokio, erabakitako urteko luzapenak, gehienez hiru urtekoak, barne direla).
2. Epe horren barruan (luzapenak barne direla) konpromisoa hartzen duela adierazitako bisitaldi gidatuen zerbitzua egiteko ("Oinarrizkoa", "Gaikakoa (1)" eta "Gaikakoa (2)", urteko zenbateko honen truke: [...] euro –dagokion BEZA gehituta; hau da, [...] euro–.
3. Ekonomia eta administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoek ezagutzen dituela, eta berariaz onartzen eta betetzen dituela.
4. Kontratu hau garatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituela.
5. Lan eta zerga esparruan indarrean dagoen legeria betetzeko betebeharra hartzen duela.

.....(e)n, 2014koaren(e)(a)n

Sinadura

VI. ERANSKINA: AITORPEN EREDUA, LIZITATZAILEAK ESKATZEN DEN KAUDIMENA ZIURTATZEKO ETA/EDO GUTXIENEO GIZA BITARTEKOAK KONTRATURA ATXIKITZEKO KONPROMISOA BETETZEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENA ETA GIZA BITARTEKOAK ERABILI BEHAR BADITU

..... jaunak/andreak, NAN duenak, enpresaren (IFk:.....) legezko ordezkari gisa, adierazi du ezagutzen dituela (*enpresa lizitatzaillearen izena*) lizitatzailleak (**eskatutako kaudimena du**) lehiatuko duena kontratatzeke lizitazioaren baldintzak, **eta esleipendun suertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak lizitatzaille horren esku jartzeko borondate ezeztazina adierazten duela**, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Hori aldatu edo onartzea KGNZ Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak baimendu beharko du espresuki.

Idatzi hori aurkeztuz gero, KGNZk konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaille hori esleipendun suertatzen bada.

.....(e)n, 201rkoaren(e)(a)n.